

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko maiatzak 9 • 98.zka. •

FELIS BELTRAN DE HEREDIA
ANDRA MARI 7-2. EZK.
ARETXABAleta

Euskararen eguna eta Otala zelai

Herriko trikitilariak

Gorriñaren bidean

Legaiia, integratzaile bidea



Nola
gelditu
behi
eta erdi
lehenago.




MECA



Mégane BERRIA
RENAULT

ZUK GIDATZEN DUZU ALA ZEU GIDATZEN ZAITUZTE?


RENAULT



Zure ustez, elbarrituek non egin beharko lukete lan: edozein lantegitan edo lantegi berezietan?

Jose Eriz
(Jubilatua)

Eurentzako den lantegi espezial batean hobeto egongo lirateke lanean lantegi normal batean baino. Ez dut mundu hori ondo ezagutzen.



Manoli Mejias
(Langilea)

Duten gaixotasuna-ren arabera egongo da hori. Baina nik uste dut lantegi berezi batean hobe litzatekeela.



Karmen Roman
(Etxekoandrea)

Lantegi berezietan integratzea izango litzateke egokiena. Baina atentzio gehiago izan beharko lukete. Eurentzako eta denentzako egon beharko litzateke lana.



Migel Lopez
(Langilea)

Nik uste dut lantegi berezietan integratzea hobe dela. Gaur egun lanerako arazo haundiak denok ditugu eta.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

LORAMENDI DANTZA TALDEKO PARTAIDE OHIEI ZUZENDUA

Adiskide agurgarriok,

Dantza taldeko partaideei erropak aldatu beharra ikusi dugu baina hauek kontatzen hasi garenean erropa asko falta zirela konturatu gara, gehienbat mutilenak. Hori dela eta Loramendi dantza taldeko partaide izan zaretenongana zuzentzen gara honako hau adierazteko: **etxean erroparik izan ezkeru, mesedez, lehenbailehen entregatu.**

Erropak musika eskolako idazkaritzan utzi ditzakezue, astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 5etatik 6etara bitartean.

Besterik gabe eta zuen laguntza eskertuz.

Loramendi dantza taldea

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Loramendi E., Udala, Euskaltegia, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Mankomunitateak gehitu egingo ditu beira eta paper edukiontziak

▼ Paper/kartoi eta pilen 4 edukiontzi gehiago jarriko dira



Gorbea, Mitarte, Errekabarren eta Otalora kaleetan jarriko dituzte paper edukiontziak

Deba Garaiko Mankomunitateak birziklapenerako edukiontzi gehiago jarriko ditu Deba Garaiko herrietan, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñatin. Orain arte, beira edo kristalenzako 92 edukiontzi zeuden eta orain 141 izatera helduko dira. Kartoi eta pilentzako edukiontziei dagokionez hauen kopuruak nabarmen igoko du, lehen 40 izatetik 130era. Horrela, 500 bat biztanlerentzako edukiontzi bat gutxi-gorabehera jartzea lortuko da.

1995. urtean erantzun ona

Mankomunitatearen datuen arabera orain arte birziklapenean lortutako emaitzak onak izan dira eta herritarrek ondo erantzun dute. 1995. urtean esaterako, batzaz beste biztan-

leko 14,8 kilo beira edo kristal jaso zen. Paper eta kartoiari dagokionez, batezbeste 15,8 kilo biztanleko. Pilen kasuan, 100 biztanleko batzaz beste 220 pila jaso dira eta 19 botoi modukoak.

Lau edukiontzi gehiago

Aretxabaletan kristalaren berreskurapenerako 12 edukiontzi daude. Paper edukiontziak barriz, 8 daude eta orain beste lau gehiago jarriko dira, 12 guztira. Azken lau paper ontziak, Gorbea, Mitarte, Errekabarren eta Otalora kaleetan jarriko dituzte.

Denok ahalegintxo bat eginez, natur baliabideen gastua txikiagoa izango da. Saiatu gaitezen beraz, birziklatu daitezken hondakinak, bakoitza bere edukiontzian uzten.

Objezio fiskalari buruzko hitzaldia

Datorren maiatzaren 10ean, eguakotxa, Aretxabaletako Talde Antimilitaristak antolatuta, objezio fiskalari buruzko hitzaldia egingo da udaletxeko ganbaran. Hizlaria Arabako objezio fiskaleko partaide bat izango da. Hitzaldia arratsaldeko 7,30etan hasiko da eta bertan objezio fiskala zer den eta nola egiten den adieraziko da. Gai honekin interesetututa zaudeten guztiok gonbidatuta zaudete.

Murualde elkarteak irabazi zuen elkartearen arteko Mus txapelketa

Urtzalde, Urbaltz, Murualde, Ibaigain, Eguzkialde eta Larrinoko San Kristobal elkarteek parte hartu dute aurtengo mus txapelketan. Finala Larrinoko San Kristobal elkartearen jokatu zen apirilaren 27an. Bertan, Murualde elkarteak Migel Arenaza eta Jorge Zubizarreta izan ziren txapelkunak. 2. Urtzalde elkarteak Fermin Alcalde eta Agustin Morales, 3. Eguzkialde elkarteak Jose Luis Garciaetxabe eta Tomas Fernandez eta 4. Urtzalde elkarteak Rodrigo Fernandez eta Iñaki Arana. Lehenengo hiru bikoteek oroigarri ederrak jaso zituzten.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Artano Taberna

Herriko Plaza
ARETXABALETA




TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

16tik 18ra urte bitarteko gazteei zuzendutako lanbide hastapeneko ikastaroak martxan jarriko dira

▼ Sukaldari laguntzailea, bulegari laguntzailea, aroztegiko langilea, igeltserotzako langilea, mekanizatu eta muntaiako laguntzailea eta TBko instalakuntza elektriko langilea ikastaroak emango dira



Ikastaroen iraupena 1996ko irailetik 1997ko ekainera bitartekoa izango da

Deba Garaiko Mankomunitateak hainbat lanetarako trebatzeko helburuz hainbat ikastaro martxan jarriko ditu. Egitarau honen helburua eskolan jarraitu nahi ez edo utzi duten gazteei lanbide desberdinetan aritzeko eta prestatzeko aukera eskaintzea da.

Lanbide hastapen programa honetan sartzen diren ikastaro desberdinak, sukaldari laguntzailea, bulegari laguntzailea, aroztegiko langilea, igeltserotzako langilea, mekanizatu eta muntaiako laguntzailea eta TBko instalakuntza elektriko langilea dira.

Programa hauetan parte hartu ahal izateko, Deba Garaiko herriren batean

erroldatua egotea, langabetua izatea eta 16tik 18ra (1978, 1979 eta 1980an jaioak) urte bitartekoa izatea beharrezkoa da.

Ikastaroen iraupena urtebetekoa izango da, 1996ko irailetik eta 1997ko ekainera bitartean. 1000 ordu inguru izango dira guztira.

Izenematea Aretxabaletako udaletxean egin daiteke maiatzaren 6tik 17ra bitartean. Matrikulazioa, berriz, Zaldibar ikastetxean ekainaren 10etik 20ra bitartean eta irailaren 2tik 11ra artean.

Plazak mugatuak dira eta aukuraketa egiterakoan izenematean egondako ordena kontutan hartuko da.

□ Udaletxeko gizarte zerbitzuak jakinarazi duenez, **kontratu bat duten elbarritu guztiek** errentaren aitortpenean 600.000 pezeta arte, soldata gordinaren %15a desgrabatzeko aukera izango dute.

□ **54 neska-mutikok jaunartzea egingo dute** Maiatzaren 12, 19 eta ekainaren 2an Aretxabaletako 8 eta 9 urte bitarteko 54 neska-mutikok jaunartzea egingo du.

Jaunartzeak eguerdiko 12etan izango dira Andra Mari elizan eta adierazitako egunetan. Esan beharra dago, haurtxoen katekesisa 6 urtetakoa izaten dela eta 3. urtean egiten da jaunartzea. Aurtengo katekistak, Maria Jesus Arenaza, Itziar Zubizarreta, Eli Balza, Ascen, Glori Ibabe, Karmele Unzueta eta Pili Olazabal dira.

□ **Molotov koktelak UGTko lokalaren aurka**

Maiatzaren 4an, zapatuan, molotov koktelak jaurti zituzten enkaputxatu batzuk Loramendi kalean dagoen UGTko lokalaren aurka. Goizaldeko 12,30ak inguruan molotov koktelak bota ostean kea irtetzen hasi zen lokaletik. Suhiltzaileak laster etorri ziren eta 1,30etarako dena konponduta zegoen.

ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA



Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Marianistak Eskoriatzara heldu zireneko mendeurrenaren ospakizuna

Aurten 100 urte betetzen dira Marianistak Eskoriatzara heldu zirenetik. 1896. urtean izan zen hau. Almen ikastolaren sorkuntzan eta geroko garapenean ere garrantzi handia izan dute marianistek. Gaur egun ez dago marianistarik Almenen 1993. urtean denek aldegin zuten eta.

Ekintza desberdinak

100. urteurrenaren ospakizun ekitaldia datorren maiatzaren 18 eta 19an burutuko da. Ekintza desberdinak antolatu dituzte egun haue-tarako.

Maiatzaren 18an, arratsaldeko 4,30etan Eskoriatzako hilerrian marianisten hilobiaren bedeinkapena egingo da. Ondoren, eukaristiaren ospakizuna Eskoriatzako elizan, Gorosarri abesbatzaren laguntzaz.

6,15etan Xabier Barrutieta, Ambrosio Bergaretxe eta Jose Mari Larrañagak 100 urte hauetako oroitzapen desberdinak gogora ekarriko dituzte Almeneko aretoan. Bakoitzak mendeurren honetako historian egon diren 3 fase des-

1896. urtean etorri ziren marianistak Eskoriatzara



berdinak kontatutako dituzte. Xabier Barrutietak, Eskoriatzako bainuetxearen ingurukoa, Ambrosiok etapa marianista eta azkenik Jose Mari Larrañagak Almenen sorkuntzakoa.

Egunarekin bukatzeko, 7,15etan 100 urte hoiekin zerikusia izan duten pertsona desberdinen topagunea izango da Almenen eta ostean luntx-a guztientzat.

Maiatzaren 19an kirol ekintza desberdinek beteko dute ospakizun ekitaldia. Marianistek kirolarekin izan duten lotura ez dute ahaztu nahi izan antolatzaileek. Hori dela eta, goizeko 10etan ekinda, Gasteizko

Santa Maria eta San Ignacioko, Donostiako Santa Mariako eta Almeneko ikasleek futbolearen eta saskibaloian euren indarrak neurtuko dituzte.

Juan Ramon Arana kiroldegia

12etan, Juan Ramon Arana, Almeneko marianista zenari omenaldia egingo zaio. Gizon honek kirolaren inguruan lan handia egin zuen eta Almeneko kiroldegia bere izena jarriko zaio. Ekitaldiekin bukatzeko 12,15etan ikasle ohiekin futbol eta saskibalo partiduak jokatu dira.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Jai giroko asteburua maiatzaren 18 eta 19an

▼ Zapatuan, Loramendi Euskara Elkarateak antolatuta Euskeraren eguna ospatuko da. **BERBARI** hitzarmenean dauden talde desberdinen eskutik hainbat ekintza antolatuta daude.



Herri bazkaria ordu bietan izango da Durana kalean

Aurtengo Euskararen egunerako Berbari hitzarmenean dauden taldeekin programa polita antolatu du Loramendi euskara elkarateak.

Goizeko 9etan txalapartarekin **DIANA** (txalaparta taldearen eskutik). Eguardi aldera **ARETXABALETAKO AKORDEOI ORKESTRA** kalean ibiliko da eta tarte honetan **herriko gazta eta sagardoa** probatu ahal izango



▼ Domekarako kuadrila desberdinei Otala-zelaira joateko deialdia egiten zaie. Aurten jai batzordeak antolatuta ekintza barriak eta bazkari herrikoia izango da.

Goizeko 10etan txistularien doinuarekin emango zaio hasiera aurtengo Otala-zelai egunari. Otala-zelain ekintza desberdinak izango dira, goizeko 11etatik arratsaldeko 5ak arte esaterako **UMEENTZAKO GAZTELU PUZGARRIA** eta 12etatik ordu batetara bitartean **ANIMALIEKIN JOKUAK**.

Eguerdikio 12etan **KUADRILEN BILKETA** egingo da partenoian eta atalataikoan Otala-zelairaino igoko da trikitilarien laguntzaz. Eguardiko ordu bietarako **BAZKARI HERRIKOIA** antolatuta dago. Antolatzailleen esku mahaiak eta edaria egongo dira. Kuadrila bakoitzak norbere bazkaria eramango du eta mahaiak hartzeko Arlutz tabernan izena eta kopurua eman beharko dira.

Bazkalostean, Otala-zelaiako **I. TXISTE TXAPELKETA** egingo da. Arratsaldean, urtero moduan, Loramendi dantza taldeak dantza saioa eskainiko du eta ondoren dantzaldia izango da.

dute kalera hurbiltzen direnek. Ondoren, herriko trikitilarietara **POTEOA**.

Eguardiko ordu bietarako **BAZKARI HERRIKOIA** antolatuta dago Durana kalean. Arratsaldeko 4etan **HAURRENTZAKO JOKUAK**, (Ortzadarren eskutik) eta **TIROLINA** Murruxiko mendizale Elkarateak antolatuta. Jarraian, Ezkutu tabernan aldibereko **XAKE PARTIDAK** (Arlutz xake taldearen eskutik). Setan, Arlutz osteko kantxan **UDA** eta **Aratz** elkarateak antolatuta **TXAPELKETA DESBERDINAK** izango dira. 6retan **LORAMENDI DANTZA TALDEAREN SAIOA** Durana kalean (Loramendi dantza taldeak eta Leizarra musika eskolak antolatuta). Jarraian, **LARRAIN DANTZA** dantzatuko da. 7,30etan, emakume arteko **II. BOLO TXAPELKETA**, Tril emakume taldearen eskutik. Gaueko 10etan **MAIXA ETA ITZIARREKIN DANTZALDIA** Loramendi elkaratearen lokal aurrean, eta gaztetxean 11etan **ROCK JAIALDIA**. Egunaren amaieran **TXOKOLATEA** egongo da Loramendiren lokalean.

❖ Bazkarirako txartelak salgai Arlutz tabernan eta Loramendiko lokalean maiatzaren 16a baino lehen. Prezioa: 1.600 pezeta.

❖ Egun guztian zehar **MARGO LAGUNAK** taldekoek muralak margotuko dituzte kalean. **OKILA** taila elkaratearen eta **BUSTINTXO KERAMIKA** taldearen erakusketak ikusgai egongo dira Durana kalean. Eguraldi txarra egingo balu Loramendiren lokalean.



Jai batzordeak antolatu du Otala-zelai eguna




Jesus Arregik "Esne-bidea (Gure Galaxia)" izenburua duen liburua idatzi du

Ia 300 orrialde dituen liburua idatzi du Jesus Arregik. "Esne-bidea (Gure Galaxia)" du izenburua eta oraintxu argitaratu du Gaiak argitaletxeak.

Bertan, gure galaxiaren eboluzioan gertatzen diren fenomeno desberdinen inguruan idazten du Jesussek.

Jesus Arregi, 1958. urtean jaio zen Aretxabaletan. Leioako Fisika Fakultatean ikasketak egin zituen. Lizentziatura lortu ondoren, egun Fisika irakasten du Gasteizko Ingenieritza Teknikorako Unibertsitate Eskolan. Betidanik Astronomiaren munduak erakarri du eta arlo horretan Udako Euskal Unibertsitatean ikastaroak burutu ditu. Liburu hau argitaratu baino lehen beste bi liburu ere idatzi zituen: "Unibertsoa: Big Bang-etik gaur egunera" eta "Astronomiaren oinarriak".



Jesus Arregi

Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketako kanporaketa

▼ Bihar, maiatzak 10, goizean Kurtzeberri eskolan bertsopaperak idatziko dira. Arratsaldean 3retan hasita Zaraia zineman bapateko txapelketa egingo da.

Gipuzkoako Ikastolen Elkar-teak, Gipuzkoako Eskolarteko XVI. bertsolari txapelketa anto-latu du. Txapelketako kanpo-raketak eskualdeka egingo dira eta aurren Kurtzeberri eskolan buru-tuko da.

Maiatzaren 10ean, egua-kotxean egingo da kanporaketa eta bi sail izango ditu: bertsopa-perak alde batetik eta bapatekoa bestetik. Bertsopaperak goizean idatziko dira Kurtzebarri eskolan. Arratsaldean barriz, bapateko saioa burutuko da Zaraia zineman. Deba Garaiko eta Deba Beheko 500 bat neska-mutiko hurbilduko dira egun honetan Aretxabaletara.

Kanporaketak amaitu ostean, Zarautzen egingo da finala. Azke-nengo saio hau, Zarauzko zinema pilotalekuan burutuko da maia-tzaren 24an arratsaldeko 4etan ekinda.



Maiatzaren 7an, Goenkaleko aktoreak "Felix" Mikel Laskurain eta "Amaia" Miren Gojenola eta hauen gain Jokin Antxia eta Igor Arenaza egon ziren Kurtzeberri eskolan. 8. mailako ikasleak kazetaritza lantzen aritu dira eta lau protagonistak elkarriketatu zituzten.

Galderez josi ostean argazkiak ateratzeko ordua etorri zen. Miren eta Mikelek behintzat argazkiak ateratzen pasatu zuten arratsaldea.

MartiW
RELOJERIA • BITXITEGIA
Bere bezeroen zerbitzuan
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

AITZIBER
Umeak

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

DOIKALSE
Elektroerosio lanak
Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

KIXKOR
TABERNA
Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

PAGALDAI
Opari denda
Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

BERALAN

KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

OSKAR
GARAJEA
Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

Aretxa gazeta
79 01 05



**T
X
i
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA




Zenbaki

Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK


Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

Lumaz bete da Urkulu (I)

Urtero bezela, udaberria heltzearekin batera, migraziotan dabiltzan hainbat hegazti akuatikok gure urtegia aukeratu dute pausalekutzat. Hemen ditugu dagoeneko ahateak, txilinportak, lertxunak, murgilak, murgilariak, uroiloak eta beste hainbat hegazti ere bai. Hauetariko lau azalduko dizkizuet segidan:

MURGIL ERREGA (*Podiceps cristatus*)

Gaztelera: Somormujo lavanco
Luzera: 45-47 zm.



Murgil erregea, izenak adierazten duen bezela urazpiko arrantzan maisu da, topeko itxurako bere gorputzari esker. Modu honetan ehizatzen ditu zapaburuak, arrainak eta krustazeo txikiak. Lumaia zuria du, bizkarra iluna bada ere. Gangar beltza eta iduneko gorria ere erraz ikustekoak dira. Aurten Urkulun kumatzen ari zaigun espezieta bat da.

LERTXUN HAUSKARA (*Ardea cinerea*)

Gaztelera: Garza real
Luzera: 95-107 zm.



Latinezko *cinerea* izenak bere errauts-kolorea (gris argia) salatzen du, hala ere, hegoen puntak eta sorbaldak beltzak dira. "S" forman daukan lepo luzearen gainean, moko zorrotza eta gangar beltz fina dituen burua kokatzen da. Mugitu gabe luzaroan egon ohi da arrain, suge eta igelak ehizatzeo orduan. Hegan ere sarri dabil.

BASAHATEA (*Anas platyrhyncha*)


Gaztelera: Ánade real
Luzera: 58-62 zm.



Urkuluko hegazti akuatikoen artean ugariena dugu basahatea. Burua berde iluna du, bular ilunetik iduneko zuri batek bereizten duelarik. Gorputza zuria da, baina bizkarraldean lerro ilunak nabari zaizkio. Orain ugal garaian dagoenez oso aktibo daukagu basahatea. Igeri zein Urkulu inguruan hegaka ikusiko duzue.

UROILO NAGUSIA (*Fulica atra*)

Gaztelera: Focha común
Luzera: 35-37 zm.



Hegazti hau identifikatzea oso erraza da. Ahate hau guztiz beltza da eta bekokia eta moko zuri-zuriak ditu. Murgiltzen nahiko trebea dugu uroilo nagusia. Bere elikaduran osagai nagusiak landare akuatikoak, molusku txikiak eta intsektu akuatikoak landareak dira. Lezkadian egiten du habia.

Mikel Arroiabe

Ahalmen fisiko, psikiko eta sentsorial guztiez baliatu ezin diren pertsonen lana egiten dute Aretxabaletako Legaia tailerlean. Gaur egun 31 langile daude bertan lanean. Legaia moduko tailer babestuek gutxitu eta elbarrituak lan munduan integratzea dute helburu. Pertsona hauek lan mundu arrunt batean integratzea izango litzateke egokiena baina gaur egungo egoerak, konpetibitateak eta krisiak barne, galerazi egiten dute hori.



18 urtetik gora izatea eta %33ko baino elbarritasun maila haundiagoa izatea baldintza ezinbestekoa da Legaia moduko tailer babestuetan lan egiteko

Legaia,

integraziorako bidea

Historia eginez, Aretxabaletan Legaia izenaz ezagutzen dugun tailerra, 1981. urtean Arrasaten sortu zen Zuber izenarekin. Hasiara baten ez zen lan tailer bat, elbarritu fisikoak lan munduan integratzeko sortutako tailer okupazionala baizik. Pertsona hauek lanerako trebatzea zuen helburu eta aurrera begira hauek lan munduan integratzea.

1985. urtean Aretxabaletan jarri zen tailerra eta urtebetera Legaia orde (AGPM Asociación Guipuzcoana Pro-Minusválidos) izatera

pasatu zen eta probintzi mailara hedatu. Horrela Gipuzkoako beste 3 eskualdetan ere sortu ziren tailerrak: Goierri, Urola eta Donosti-aldean. Azken aldaketa 1995. urtean izan zuen, AGPM desagertu eta Legaia S.L. sortu zen.

ZOR HAUNDIAK

Orain 5 bat urte zor haundietan sartu zen AGPM. Langileek ez zuten soldata behar moduan kobratzen, lokalak ez ziren ordaintzen eta Haziendarekin papalak ez zeuden egunean. 180 milioitako zorrak izatera iritsi zen. Diputazioak dirulaguntzak moztu zituen eta jakina hauek barik ezin zen aurrera jarraitu.

Ines Murillok, gaur egungo Legaiaiko administrazio kontseilukoak honela deskribatzen digu bere ikuspuntua: *"direktiba barria sartu ginenean, AGPM proiektu askotan sartuta zegoela konturatu ginen. Inbertsio asko egin ziren eta AGPMk ez zuen hori ordaintzeko*

dirurik. Ez dago iruzurrik egon zenik jakiterik baina dena dela gestio txar bat egin zen". Oso momentu latzak gogoratzen ditu Inesek. *"Inork ez zigun lagundu nahi enpresak zor haundiak zituen eta".*

ZULOTIK IRTETEN

Hasiara baten inork lagundu nahi ez bazien ere, pertsona batzuen laguntzarekin eta dirulaguntzekin aurrera ateratzea lortu du Legaia. Hala ere, zorrak hor dira eta langileak dira poliki-poliki hauek ordaintzen ari direnak. *"Langileak ez gara zorretatik libratu, baina Haziendarekin akordio batera heldu gara hauek poliki-poliki ordaintzen joateko"* dio Inesek.

Zulotik irtetzeko INEMek subentzio batekin lagundu zien eta tailerraren zuzendaritza eramango zuen gerente bat ordaindu. GUREAK tailerrak ere, esperientzia eta langileak elkartrukatzeko aukera eskaini zien.

LEGAIA LANGILEENA

Badirudi zailtasun haundienei aurre egin ostean martxari heldu diola berriz ere Legaia. Gaur egun, Legaia S.L. langileena da. Beraiei

zor zitzairen dirua akziotan inbertitu zuten eta orain akzio guztiak langileenak dira. Tailer babestuak dira eta hori dela eta subentzioak jasotzen dituzte, INEMetik zati haundiena eta beste apur bat Diputaziotik. Guztira, 4 tailer ditu Legaiak Gipuzkoan eta hauen administrazioa Astigarragan dauden ofizinetatik bideratzen da.

Tailer hauetan 195 langile lanean ari dira eta ezaugarri batek batzen ditu guztiak, lanerako ahalmena mugatua izateak hain zuzen ere: batzuk ahalmen sentsoriala, psikikoa beste batzuk eta gehienek fisikoa. Izan ere, tailer babestu hauetan sartzeko eta dirulaguntzak jasotzeko baldintza ezinbestekoak dira, 18 urtetik gora izatea eta %33ko baino elbarritasun maila haundiagoa izatea. Elbarritasun mailaren azterketa Diputazioak bideratzen du. Bertan arazo desberdinen araberara psikologoak, gizarte laguntzaileak edo medikuak egingo du pertsonaren azterketa eta balorazioa.

Aretxabaletako tailerlean konkretuki 31 lagun daude, horien artean 13 gutxitu fisiko, 9 psikiko eta 3 sentsorial. Bat ezik beste guztiek behin-betirako kontratua dute. Gehienak Aretxabaleta eta Arrasatekoak dira, baina bergaratar, elorriotar eta elgetar bat ere badaude.

Legaiako langileen lan baldintzak beste edozein langilerenak modukoak dira, gutxienezko soldata interprofesionalaren barruan, egindako lanaren araberara ko-
bratzen dute.

Enpresa desberdinendako lan egiten dute, kotxeentzako piezak, TESArako sarraila muntaia, Coprecirako pizgailu elektrikoak...

RIKARDO ETA TERESAREN ESPERIENTZIA

Guztira 6 atxabaltarrek lan egiten dute Legaian eta horien arteko bi Rikardo Sebastian eta Teresa Saez ditugu. Biek 26 urte dituzte. Rikardok 8 urte daramatza Legaian

Arazo fisiko, psikiko eta sentsorialak dituzten pertsonen lan aukera bat emateko sortu ziren babestutako tailerrak



Kotxeendako kableatua egiten

lanean eta Teresak 6.

Rikardok, Legaian izan du bere lan esperientzia bakarra. Hanka du Rikardok ezindua eta horregatik hasi zen Legaian lanean. TESArako sarraila muntaia egiten ditu eta gustora dagoela kontatu digu. *“Hemen ere beti izaten dira gora-beherak beste leku guztietan moduan, baina orokorrean gustora nago”*.

Teresa, ere ezintasun fisiko batek mugatzen du lanerako, Escoliosis-ak. Bizkarreko gaitza dauka. Hau du bere lehen lan esperientzia eta dagoeneko 6 urte egin ditu Legaian. Bere laneko egoeraz kezu zen Teresa, *“hemen ez daude gauzak behar moduan. Nik bizkarreko gaitza daukat eta laneko 8 orduak zutik pasatzen ditut, lau ordu gutxienez jarrita egin beharko*


nituzkeen bitartean. Bizkarreko minez heltzen naiz askotan etxera”. Teresak lan desberdinak egiten ditu, Coprecirako piezo elektrikoak batzutan, TESArako sarrailak, e.a.

INTEGRAZIOA PROZESU ZAILA

Gaur egun Europa eta mundu mailan dagoen tendentzia arazo fisiko, psikiko eta sentsorialak dituzten pertsonak lan mundu arrunt batean integratzea da. Baina hau oso teorikoa da. Gaur egungo kompetibitateak eta krisiak beste faktore askoren artean ia ezinezkoa egiten dute nahi hori. Dana dala, GUREAK tailerrak baditu honelako kasu eta esperientzia batzuk. Baina hala ta be, ideal hori nahiko zaila dela kontutan izanik, Gipuzkoan GUREAK, LEGAIA eta KATEAK moduko babestutako tailerrak sortu ziren. Arazo fisiko, psikiko eta sentsorialak dituzten pertsonen lan munduan sartzeko aukera eskaintzea dute helburu. Gaur egun GUREAK tailerra da denetatik asentatuena dagoena eta egoera onena azaltzen duena. Denetatik esperientzia gehien duena ere bada, 19 urte luzetan jasotako esperientzia. LEGAIA, orain gutxi arte zuloan egotetik ateratzen hasi da poliki-poliki. Azken honek GUREAKekin erlazio haundiagoa mantentzen du orain. KATEAKek tradizio txikiagoa du eta bere egoera beste bi tailerrak baino okerragoa da.



31 lagunek lan egiten dute Aretxabaletako Legai tailerlean



Goitibehera jeitsiera Arrasateko Udala auzotik behera

Arrasateko AED Elkar-teak goitibehera jeitsiera antolatu du. Jeitsiera ekainaren 23an goizeko 11etatik aurrera izango da Udala auzotik behera. Lehiaketan parte hartzeko arauak aterata daude eta informazioa gura izan ezker 77 12 28 telefonoan deituz lortu daiteke.

Sariak honakoak dira: 1-30.000 pta eta txapela; 2. 20.000 pta; 3. 15.000 pta; 4. 12.000 pta; 5. 10.000 pta; 6. 9.000 pta; 7. 8.000 pta.; 8. 7.000 pta; 9. 6.000 pta; 10. 5.000 pta. Sari berezia zoritxarrari: 5.000 pta. Sari berezia orijinaltasunari: 5.000 pta.

Frogaren ondoren bazkaria izango da Arimazuri plazan partehartzaile, antolatzailer eta gura dutenentzat.



Pedro
Aranbarri
"Gorriña"
(1931)

Ezetz inork ostera egin!

Horrela bukatzen zuen Julen Zuazabeitiak 1995. urteko Aretxagazetako 85. alean "Gorriñaren" inguruan idatzitako kontu zaharra. Gorriñak, 1931. urtean 7 ordu baino gutxiagotan egin zuen Aretxabaletan hasi eta Aizkorriarainoko joan etorria. Baina itxura denez, "ezetz inork osterera egin!" esaldi horrek tentatu ditu Murruxiko Mendi Elkarteko banaka batzuk. Joseba Gonzalez, Jabier Irure, Aitor Atxaga eta Alvaro Urreta dira proba egitera animatu direnak.

Datorren zapatuan, maiatzaren 11n, udaletxeko atearen goizeko 7retan aldaba jo eta Aizkorriarantz abiatuko dira. Eguerdi aldera hemen izango ditugu eta orduan ikusiko dugu Gorriñak egin zuena egiteko gai diren. Murruxiko Mendi Elkartek behintzat, baietza eman dio desafioari. **Animo ba!**

"Hantxenjunda", lortu dute

Felix eta Albertok munduko 6 gailurrik altuenak zapaldu dituzte

Eguraldiak eta osasun egoera txarrak hainbat oztopo jarri ondoren, pasatuen astelehenean zapaldu zuten euskal espedizioak Kangchenjungako gailurra (8.596 m). Goizeko 9,45etan iritsi ziren tontorrera Felix eta Alberto Inurrategi eta Juanito Oiarzabal. Kike de Pablok ez zuen igotzerik izan.

Euskal mendizaletasunaren historian bigarren aldia da euskaldunak mendi hau igotzen dutena, Martin Zabaletak 1988. urtean lortu zuen Kangchenjungaren gaina. Aurtengo hau ere igoera garrantzitsua izan da duda barik, igoera honekin Felix eta Albertok munduko 6 gailurrik altuenak lortu dituzte eta.

Hori da marka hori!

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABAleta

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

JOLAS
LEKU

Mitarte, 10
Aretxabaleta

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta

EGUZKIGRAF
inprimategia

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792944
ARETXABAleta

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABAleta

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

Arrakastatsua Ojala-zelaiko krossa

- ❑ 108 korrikalarik parte hartu zuen krossean
- ❑ Seniorretan, Ramon Jausoro atxabaltarrak irabazi zuen proba

Eguraldi ederra egin zuen maiatzaren 5ean korritu zen Ojala-zelaiko krossean. Takarraran egiteko bero haundiegia beharbada, batzuk larri pasatu zuten eta mareatu ere mareatu ziren banaka batzuk beroaren eraginez. Baina azken finean giro bikaina sortu zen bertan elkartu ziren partehartzaile eta bertara hurbildu ziren guztien artean.

108 korrikalarik parte hartu zuten guztira. Hoietatik, 50 senior; 18 junior; 29 beterano eta 11 emakume.

Seniorretan Ramon Jausoro atxabaltarra izan zen lehena helmugaratzen. Urtegiari bi bueltak emateko, 42' 13" denbora egin zuen. Ez zuen hortaz, Apalanzaren errekorra gainditerik izan. Azken honek 40' 59" utzi zuen errekorra.

Atxabaltarrak ere fin ibili zirela esan behar da. Emakumetan bi partehartzaile izan genituen: M^a Elena Llorente eta Maite Mateo; juniorretan 5, Asier eta Igor Dublan, Asier Eraña, Josu Lasagabaster eta Aitor Alzola; beteranoetan 3, Jose Revuelta, Jesus Lonbide eta Feliciano Martinez; seniorretan 7, Ramon Jausoro, Joseba Larrinaga, Joseba Gonzalez, Aitor Atxa, Alfonso Luelmo, Jose Ignacio Garai eta Jose Javier Iurre. Eta hauen artean garaipenik lortu zuenik ere izan zen: Maite Mateok emakumetan 5. postua lortu zuen. Juniorretan, Igor Dublanek 3.a, eta Asier Dublanek 5.a. Ramon Jausorok seniorretan garaipena. Zoriontzeoak dira guztiak eta baita proban parte hartzera animatu ziren guztiak ere.



Emakumetan lehenengo 5 irabazleak



Seniorretan lehenengo 6 sailkatuak

Kategorien arabera honela gelditu ziren klasifikazioak:

Seniorretan:

1.- Ramon Jausoro	Aretxabaleta	42'13"68
2.- Manu Hurtado	Azpeitia	43'04"33
3.- Iosu Arregi	Azpeitia	43'08"90
4.- Xanti Azurmendi	Matxinbenta	44'08"00
5.- Javier Mentxaka	Arrasate	45'14"30
6.- Rafael Blanco	Legorreta	45'14"80

* Lehen atxabaltarra: Ramon Jausoro

Juniorretan:

1.- Alexander Garretas	Galdakao	20'30"6
2.- Jorge Perez	Abadino	23'12"6
3.- Igor Dublan	Aretxabaleta	23'47"2
4.- Felis Sanchez	Oñati	23'57"0
5.- Asier Dublan	Aretxabaleta	25'13"0

* Lehen atxabaltarra: Igor Dublan

Emakumetan:

1.- Pilar Arriola	Elgoibar	28'48"15
2.- Montserrat Caceres	Valladolid	28'50"52
3.- M ^a Jose Gil Gil	Arrasate	29'03"35
4.- Ane Ernane	Maruri	29'08"44
5.- Maite Mateo	Aretxabaleta	30'38"69

* Lehen atxabaltarra: Maite Mateo

Beteranoetan:

1.- Juan Aldai	Eibar	20'45"5
2.- Serafin Garcia	Lasarte	21'15"6
3.- Francisco Andres	Arrasate	21'57"0
4.- Enrike Kabiketa	Arrasate	21'57"7
5.- Antonio Soria	Valladolid	23'29"4

* Lehen atxabaltarra: Jesus Lombide

EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak...
Enpresendako promozio bideoak.
Eskola eta Elkarteendako
promozioak eta ekintza bereziak.
Etxeetan grabatutako bideoen
muntaiak.
Otalora 15 • ARETXABALETA •
Tfnoa: 79 78 37

TXIMAK

ileapaindegi
mistoa



Herriko Plaza, 5 - behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABALETA

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat


Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

BASABE

Jatetxea

- Bazkariak
- Menuak
- Karta merkeak

Basabe Bidea z/g ☎ 79 91 84
ARETXABALETA



“Trikitixari ateak zabalduz”

Jaietan gure herriko kaleak doinuz animatzen dizkiguten trikitilari gazteak Iratzeder Iturri, Ainara Etxenautia, Haizea Kobos atxabaltarrak eta Ainhoa Kortazar eskoriatzarra ditugu. Hamazazpi urtetako lau neska papoxa hauek hamabost urte zituztela hasi ziren trikitixa ikasten eta dagoeneko majo astintzen dituzte soinu eta panderoak.

NOIZ HASI ZINETEN HONETAN?

Orain dela pare bat urte. Hasieran talde haundiagoa osatzen genuen baina gerora poliki-poliki gu bakarrik geratu gara.

NOLA HASI ZINETEN?

Lagunen artean animatu eta hasi ginen.

HERRITIK KANPO JOTZEN DUZUE?

Bai, noizean behin jo izan dugu, Eskoriatzan eta Arrasaten batez ere.

NOLA IKASI DUZUE TRIKITIXA JOTZEN?

Zenbakien bidez ikasi dugu musika irakurtzen.

ZUEZ GAIN BADABIL NORBAIT TRIKITIXA IKASTEN?

Bai, jende asko dabil trikitixa ikasten, gero eta gehiago gainera, baina kalera irten eta jende aurrean jotzen ez dira animatzen.

ZER ESANGO ZENIOKETE MUNDU HONETAN EGIN GURA DUEN BATI?

Animatzeko eta kalera irtetzeko. Ondo pasatzen da eta diru apur bat ere irabazten da.



Haizea Kobos, Ainhoa Kortazar, Iratzeder Iturri eta Ainara Etxenautia

TRIKITILARI KONKRETUREN BAT HARTZEN DUZUE ERREFERENTZIATZAT?

Ez, gure roilora ibiltzen gara.

KANTA EDO DOINU PROPIORIK BADUZUE?

Ez, oraindik ez dugu arlo horretan ezer egin.

GAUR EGUN ZELAN DAGO TRIKITIXA?

Oraindik ere jende askok esaten digu trikitixa mutilena dela, eta gu lau neska izanik...

“Jendeak
askotan
esan digu
trikitixa
mutilena
dela”

ZER ETORKIZUN IKUSTEN DIOZUE TRIKITIXARI?

Gero eta jende gehiagori gustatzen zaio trikitixa eta honetan gauza berriak ere egin daitezkeela erakutsi da.

ZER IRITZI DUZUE TRIKITILARI TXAPELKETARI BURUZ?

Azkenengo trikitilari txapelketan oso maila altua erakutsi zen, pupurrietan batez ere. Arlo hau lehenengo aldiz sartu zen txapelketa batean. Imaginazio handia dagoela ikusten da.

✍ Jennifer Nelson eta Amaia Murgiondo

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta


Dorleta
Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 beheka ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56



Argazkietan ageri den eraikuntza garai bateko Eskoriatzako marianisten konbentua dugu. Aurten 100 urte dira marianistak Eskoriatzara etorri zirela. Menduraren honetako historian 3 fase desberdin banatu daitezke: 1.goa, Marianistak etorri aurrekoa; 2.a Etapa marianista eta 3.a Almen sortu ostekoa.

Argazkiko eraikuntza konbentu bilakatu aurretik bainuetxea izan zen. Azken hau, 1865. urtean zabaldu zen eta bere historia 1894. urterarte luzatu zen. Antza denez, goi mailako jendea etortzen zen bainuetxera, Madrilgo goi karguko jendea, burgesak, e.a.

Ezagutzen da orduko bitxikeriarik. Espainiako Alfonso XII erregearen arreba, María de Pilar de Borbón y Borbón Eskoriatzako bainuetxean hil egin zen 1879. urtean. Ez dira ezagutzen heriotzaren arrazoiak baina heriotza honen ondorioz izugarrizko elizkizunak egin ziren Eskoriatzan.

Esandako moduan, 1894. urtean bainuetxea itxi egin zen eta urtebete beranduago 1895. urtean marianistek erosi zuten. Frantziatik etorri ziren marianistak Eskoriatzara baina lehenagotik ere beraien presentzia nabari zen Euskal Herrian, Donostia eta Gasteizen esaterako.

Bi etapa zituen marianista formakuntzak, postulanta (10 urtetik 15 urtera bitartekoa) alde batetik eta eskolastika bestetik, azken hauek goi



mailako ikasketak ziren eta 17tik 20 urtera bitartean luzatzen zirenak. Bi formakuntzen tartean urte beteko nobizioa egitera kanpora joaten zen.

Baina marianistek inguruan bizi ziren herritarrei ere ikasteko aukera zabaldu zien. Horrela, "La Soborna" izenarekin lehen hezkuntza zabaldu zen. Konbentu inguruan bizi zirenak joaten ziren marianistetara ikastera.

1965. urtean 3. fase bat zabaltzen da marianisten historian. Urte horretan Almen, Asociación Leniz Mancomunidad de Enseñanza, sortu zen. Eskolaren funtzionamendurako marianisten laguntza ezinbestekoa izan zen eta hasierako urte haietan marianistak aritu ziren irakasle lanetan. Ondoren poliki-poliki kanpoko jendea ere hartu zen irakaskuntzarako baina beti egon da marianisten presentzia. Gaur egun marianistarik ez da gelditzen Almenen, azkenengoak 1993. urtean irten ziren.

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S. A.

“ARINSA”

Basabe Poligonoa "EO-10"
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA (Gipuzkoa)

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71.69

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Zapatuan baietz!



M.J. Aretxaga

Murruxikoko lokal inguruan mugimendu haundia izan da aste honetan. **Felix eta Alberto** direla, eta **Kangchenjunga** dala eta (zorianak guztiei). Baina hau ez da arrazoi bakarria izan, datorren zapatuan maiatzaren 11n bertako lagun batzuk, **Alvaro Urreta, Joseba Gonzalez, J.J. Irure** eta **Aitor Atxaga, Gorriñaren** marka hobetzen saiatuko dira. Aber ba, taldeko himalaiariak besteko sasoiaren erakusten duten eta euren helburua lortzen duten.

Helburu sendoak eta finkoak dituzten beste batzuk Aretxabaletako insumisoak dira. Azken asteotan hiru kide epaitu dituzte, **Beñat Berasaluze, Xabier Jausoro** eta **Unai Oskoz**. Fiskalak 2 urte, lau hilabete eta egun bat eskatu du eurentzako baina epaileak ez du oraindik erabakia hartu. Lan gogorra izango dute hauek maiatzaren 24an martxan jarriko den Kode Penal berria

geldiarazteko. (Ikusi egin behar zein asmo dituen orain bibotedunak).

Loramendi Euskara Elkarteak ere lanean jarraitzen du. **Maidier Bidaburu** mondrautarra eta **Zorione Jausoro** atxabaltarra TASOC moduloko praktikak egiten dabilta bertan. Aretxabaletako euskararen ikerketa bat hasiko dute (kontu zaharrak, esamoldeak, e.a.). Lan hau oso luzea izango da baina hauek jarriko dute lehenengo harria.

Unibertsitate mundutik ere albiste pozgarriak datoz. Alde batetik **Jesus Arregi** atxabaltarrak astronomiari buruzko liburu bat plazaratu du eta euskaraz gainera. Hau ez da egunero gertatzen den gauza.

Bestalde **Fran Migel**, Euskal Herriko Unibertsitateko errepresentante moduan Madridera joan da, Espainiako Unibertsitate mailako xake txapelketa jokatzera. Ea ba goian geratzen den gure unibertsitatea.

Eta agurtu aurretik zera gogoratu gura dizuet: maiatzaren 18 eta 19an **Euskeraren Eguna** eta **Otala-zelai Eguna** ospatuko dira gure herrian. Beraz, astebukaera horretarako ez egin beste planik eta geratu herrian. Eta hori bai, bertan antolatuko diren ekintzetan parte hartuz. Gure koadrilakoek ala egin behar dugu. Kriston martxa egongo da eta ligetako aukera asko ere bai.

ARETXAZOKA

- Valdezate taberna inguruan giltza batzuk galdu dira. Bizkaiko Foru Aldundia dioen naruzko giltzakoak. Deitu 79 01 05 telefonora.

- Matematikak emango lituzkeen norbait behar da. (2. REM). Deitu 79 30 84 telefonora arratsaldez hobe.

- Emakume euskalduna eskaintzen da ordu batzuk lan egiteko. Tfnoa: 79 43 63

- Euskeraz, ingelesez, gaztelaz eta beste hizkuntza batzuetan ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Tfnoa: 79 47 54.

- Umeak edo zaharrak zainduko nituzke edo eta ordu batzutarako lanak egingo nituzke. Tfnoa: 77 02 13.

ETXEBIZITZA

- Apartamentu bat salgai dago Eskoriatzan. Telefonoa: 74 01 17

- Pisu salgai dago Durana kalean 33. zenbakian (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Egurdian eta arratsaldean).

- Laredon uztailean apartamentu bat alokagai dago. Telefonoa: 79 52 80.

- 82 m²-ko lokala salgai. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago.

Telefonoa: 79 01 17

- 3 neska euskaldunek pertsona bat behar dute Madrilen pisua osatzeko, ekainetik aurrera. Tfnoa: (91) 4043838

- Pisu bat salgai dago. 83 m² ditu eta altzariz jantzia. Solohaundi kaleko 25. zenbakian. (3. pisua eskuma). Telefonoa: 79 45 31.

- Garaje bat alokagai dago. Santa Kurtz kaleko 24. zenbakian. Lurrazpiko lehenengo pisuan. Telefonoa: 79 05 28

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.



Maria Teresa Hidalgo

“Ez dut sekula neure ilea moztu”



Salamankako Valdecarros herrian jaiotakoa dugu Maria Teresa. Orain 30 urte etorri zen Aretxabaletara eta 20 urte pasatu dira “Maite” deitzen den ilemoztegia jarri zuenetik. Denek Maite izenez ezagutzen badute ere bere benetako izena Maria Teresa dela aitortu digu.

- **Non ikasi zenuen ilea moztzen?**

Gasteizen.

- **Moztu duzu inoiz zure ilea?**

Ez, sekula.

- **Nork orrazten eta moztzen dizu ilea?**

Hemen lan egiten duen beste neska batek edo eta bestela beste ilemoztegi batetara joaten naiz.

- **Urtean zehar zein sasoiatan egoten da lan gehien?**

Orain maiatzetik aurrera lan gehiago egoten da, jaunartzeak, ezkontzak, e.a. direla eta. Urtarrila eta otsaila oso lan gutxi egoten da.

- **Ze orrazkera mota dago orain modan?**

60 eta 70. hamarkadako orrazkerak datoz orain ostera modan. Kardatu leunagoa, punta atereak, e.a.

- **Mutilek asko begiratzten diote modari?**

Ez, gutxi. Mutiletan bakoitzak bere pertsonalitatea dauka eta bere gustora eramaten du ilea. Melena baino gehiago motz eramaten dute.

- **Orain koloretako ilea dator, urdina, orlegia... eman duzu zuk horrelako tinterik?**

Ez, oraindik ez. Hasi nintzenean, behin eman nituen metxa urdin batzuk.

- **Zenbatean behin garbitzen duzu ilea?**

Egun bitik behin.

- **Ez da txarra ilea askotan garbitzea?**

Ez, ez da txarra, garrantzitsuena ilea ondo zaintzea da eta behar bezalako txanpuekin garbitzea.

- **Zer egiten duzu lanetik irteandakoan?**

Orain, udaberria hasi denetik eta eguraldi ona egiten duenean gizona eta biok Apozara pasioan joaten gara. Bestela etxean beti egoten da zeozer egiteko.

- **Nolakoa da zure izakera?**

Ez nuke hori erantzuten jakingo.

- **Zein da zure afiziorik gogorrena?**

Sukaldaritza gustatzen zait.

- **Eta zein da ondoen gertatzen duzun janaria?**


Txerrikume errea. Salamankan egiten den platera da hau.

- **Egin duzu udarako planik?**

Ez, oraindik ez.

- **Zer egingo zenuke orain 15 egunetako oporrak izanda?**

Eguzkia dagoen lekuren batera joango nintzateke.



NUNCA HABLES CON EXTRAÑOS (EEBB, 1995)

Sarah Taylor doktoreak (Rebecca de Mornay) hainbat lagun hil egin duen hiltzaile amorratu baten etorkizuna bere eskuetan du. Berari agindu diote May Chesky (Harry Dean Stanton) “serial kyllerra” burutik jota dagoen ala ez erabakitzea. Aldi berean Sarah-k bere bizimodua erabat aldatuko duen pertsonaia misteriotsua ezagutuko du, Tony Ramirez (Antonio Banderas) alegia. Tonyk, polizia ohia, dotorearen bihotza irabaziko du. Bitartean, gero eta gauza harrigarriagoak gertatuko zaizkio Sarah-i, egun baten etxeko katua hilda agertzen den arte.

Zuzendaria: Peter Hall. **Aktoreak:** Antonio Banderas, Rebecca de Mornay, Harry Dean Stanton.

HEAT (EEBB, 1995)

Vincet Hanna (Al Pacino), gaizkileen ehizarako oso instintu ona duen polizi trebea eta bakartia dugu. Neil McCauley (Robert de Niro), bankuak lapurtzen dituen talde burua. Hala ere, badago bien arteko loturarik: lanak bakarrik ematen die aurrera egiteko indarra. Beraz, legearen muturretan egon arren biek arazo berdin xamarrek dituzte. Dena dela, espero zitekeen baino bien arteko enfrentamendu gutxiago eskeintzen digute. Zentzu honetan Mannek ez du bien arteko kimikarik piztea lortu.

Zuzendaria: Michael Mann. **Aktoreak:** Al Pacino, Robert de Niro, Val Kilmer, Tom Sizemore, John Voight, Amy Brenneman, Diane Venora, Ashley Judd, Mykelti Williamson.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia

ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30



Amaia-Berri, S.L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

BERGARA



Maiatzak 11

ANTZERKIA

Ekekei taldearen "Hiltegia" antzezlan. Zabalotegi aretoan gaueko 10,30etan.

Maiatzak 4-12

ETXE BARRUKO DEKORAZIO ERAKUSKETA

Kultur etxean.

Maiatzak 16-26

KERAMIKA ERAKUSKETA

Simon Arrieta tailerreko keramika erakusketa kultura etxean.

OÑATI



Maiatzak 12

LONDON WINDS TALDEA

Santa Ana Antzokian arratsaldeko 7,30etan, Ingalaterrako laukotearen eskutik musika klasikoko kontzertua.

Maiatzak 19 domeka

LA COLOMBINA

Santa Ana Antzokian arratsaldeko 7,30etan, "La colombina" taldea. Argentinarrak, italiarrak eta 2 katalandarrez osatutako taldea.

ARRASATE



Maiatzak 11

IX. ESKOLA ARTEKO ABESBATZEN TOPAKETA

Amaia Antzokian goizeko 11etan eta arratsaldeko 5etan. San Frantzisko Xabier ikastolak antolatuta.

Maiatzak 14, 15, 22

HITZALDI INTERNAZIONALISTAK

Komite internazionalistak antolatuta Monterron kultur etxean arratsaldeko 7etan.

Maiatzak 15, 17, 19

MUSAKOLAKO JAIAK

Maiatzak 16 eguna

ZINEA

Gaueko 9,30etan Amaia Antzokian "LAMERIKA".

Maiatzak 19 domeka

ARRASATE-OÑATI LASTERKETA

Informazioa AEDn (77 12 28)

Maiatzak 23 eguna

ZINEA

Gaueko 9,30etan Amaia Antzokian "ROSALIE VA DE COMPRAS".

LEHIAKETAK

"GAZTEAK ETA INTSUMISIOA" VII. argazkiak. (2 kategoria). Epea: urriak 11. Informazioa: Gazte Informazio bulegoan. (77 00 65).

IKASTAROAK

Argazkigintza ikastaroa (Hastapena). Maiatzaren 11tik ekainaren 15erarte. Zapatu goizetan. Informazioa eta izen ematea GAZTE BULEGOA (77 00 65). Euskal dantzak, Lana aurkitzeko teknikak, Fiskala (IRPF, BEZ), gazteentzat: Autoestima eta Heziketa sexuala. FAMILI ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUAN. (79 04 59).

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

**INDUSTRIALDEA
MEDIKU-ZENTROA**

Luis Orruño
Medikua
Zaraia
Masaiak eta osteopatia


Industrialdea
Pabelloi F-O b
☎ 79 06 82
ARETXABALETA

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*



Aretxabaleta

Militaria 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio

**MENDIOLA
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA



**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

Maiatzak 10 eguakotxa

OBJEZIO FISKALARI BURUZKO HITZALDIA
Aretxabaletako Talde Antimilitaristak antolatuta. Arratsaldeko 7,30etan udaletxeko ganbaran.

ZINEA

NUNCA HABLES CON EXTRAÑOS,
Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 11 zapatua

ZINEA

NUNCA HABLES CON EXTRAÑOS,
Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 12 domeka

HERRI URRATS

Aurten **Senpere Kanboko Xalbador ikastegiak** antolatuta eta "Ameasa baino gehiago" lemapean.

Zapatuan joango direnentzako autobusa bazkalostean irtengo da Azbetik. Domekan, barriz, goizeko 7:45etan Azbetik.

ZARAIA MENDI TALDEA

Zaraia Mendi taldeak **ALDAMINERA** egingo du irteera.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Udana-Astiria-Zerain-Segura-Zegama-Zerain-Astiria-Udana-Oñate-Aretxabaleta. 90 Km.

ZINEA

NUNCA HABLES CON EXTRAÑOS,
Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan.

Maiatzak 13 astelehena

ZINEA

NUNCA HABLES CON EXTRAÑOS,
Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 14 martizena

JAI BATZORDEAREN BILKURA

Arratsaldeko 6retan udaletxeko ganbaran.

Maiatzak 17 eguakotxa

ZINEA

HEAT, Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 18, 19

MARIANISTAK ESKORIATZARA ETORRI ZIRENEKO MENDEURRAREN OSPAKIZUNA

Egitaraua "Hamabostean behin" en.

Maiatzak 18 zapatua

EUSKERAREN EGUNA

Egitaraua "Hamabostean behin" en.

ZINEA

HEAT, Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 19 domeka

OTALA-ZELAI EGUNA

Egitaraua "Hamabostean behin" en.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Aramaio-Kruzeta-Legutiano-Gasteiz-Elorriaga-Ntra. Sra. Estibaliz-Gasteiz-Arroiabe-Landa-Aretxabaleta. 92 Km.

ZINEA

HEAT, Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,15etan.

Maiatzak 20 astelehena

ZINEA

HEAT, Zaraia zineman gaueko 10,15etan.

Maiatzak 25 zapatua

KUKUBILTAREN TXOTXONGILO EMANALDIA

Zaraia zineman arratsaldeko 4retan ekinda. Sarrera 300 pezeta.

Maiatzak 26 domeka

IBILALDIA

Trapagaran

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETAKO



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETAKO

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

**UNITED COLORS
OF BENETTON.**



Maalako Errabala, 13 • ("OKENDO KIROLAK" en ondoan) • Tfnoa: 79 50 78 • ARRASATE